

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2015

KONTSUMOBIDE

1. Toki-erakundeentzako eta haien sustatutako erakundeentzako diru-laguntzen programa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko

1.- Izenburua

Toki-erakundeentzako eta haiek sustatutako erakundeentzako diru-laguntzen programa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko

2.- Araua

AGINDUA, 2010eko otsailaren 17koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena (2010-02-24ko EHAA, 37. zk.)

EBAZPENA, 2014ko urriaren 30ekoa, Kontsumobideko zuzendariarena (2014-11-20ko EHAA, 222. zk.)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horien helburua da Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoen instalazio-gastuak, eraberritze-gastuak, ekipamendua handitzeko gastuak edo Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulego izatera bideratutako zentro eta zerbitzuen kokapen-aldaketarekin lotutako gastuak ordaintzea, baita honako gastu hauek ere: Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulego izatera bideratutako zentro eta zerbitzuen funtzionamendu-gastuak, bulego horiek egiten dituzten prestakuntza- eta zabalkuntza-jardueren ondoriozko gastuak, eta kontsumo-ikuskapeneko jarduerak egitearen ondoriozko gastuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2015. urtean 337 erakunderi eman zaizkie laguntzak Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoen funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, eta horri esker bulego horiek arreta eskaini ahal izan diete kontsumitzaileen erreklamazio eta kontsultei, baita informazio- eta prestakuntza-jardueren garapenari ere.

Era berean, laguntzak eman zaizkie 7 erakunderi kontsumo-ikuskapeneko jarduerak garatzeko, eta jarduera horien bidez merkatuan kontsumitzailearen eskueran jarritako produktuen segurtasunaren kontrola gehitu da.

Bestalde, laguntzak eman zaizkie 3 erakunderi bulegoen ekipamendua eta instalazioak hobetzeko.